

HEZKUNTZA PROGRAMAK

2022-2023

AZPEITIKO UDALA

Azpeitia
Denontzat

HEZKUNTZA PROGRAMAK

Gidaliburu hau udaleko sail guztien laguntzarekin Hezkuntza zerbitzuak herriko ikastetxeentzat zuzenduriko hezkuntza jarduerak jaso nahi dira, ikasle, irakasle, guraso eta herritarrentzat interesgarri izan daitezkeen zerbitzuak.

ARLOA	JARDUERA
KIROLA	Eskola kirola programa
	Gazte Kirol programa
	Igeriketa Sustapen kanpaina
	Kirol orientazio zerbitzua (KOZ)
PAREKIDETASUNA	Hezkidetza eta tratu onak bultzateko programa
EUSKARA	Etorkizun egitasmoa
	Etorkizuneko uda
	Harrera saioak
	Hedatu
	C1 maila
	C1 maila udan
	Gurasoak euskalduntzen
GIZARTE ZERBITZUAK	Haurren babesgabetasuna prebenitzeko detekzio eta esku hartze goiztiarrerako programa.
	Bizitzarako trebeziak: Sare sozialak
	Bizitzarako trebeziak: drogomenpekotasuna eta adikzioak
KULTURA	Kultura eta irakurzaletasuna suspertzea: liburutegia
	Gu ere bertsotan
	Logopedia Zerbitzua
INGURUMENA	Eskola Agenda 2030
GAZTERIA	Ludoteka Zerbitzuaren irekiera
	Gazteleku Zerbitzuaren irekiera
HEZKUNTZA	Haurren Kontseilua

	Nerabeen partehartzea
	Txinaurriak: Kultur sormena ikastetxeetan
	Hedatze progama - Sormen tailerrak
	Guraso eskolak
IRAURGI BERRITZEN	Ikasiz
	Gerolan
	Proiektugintza Zientzia eta Teknologia irakasgaietan
	Elkarrekin eraikitzen

PROGRAMA	ESKOLA-KIROLA PROGRAMA 2022/23
GAIA	Eskola Kirola
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Kirol-praktika eta jarduera fisikoaren bitartez ikasleen heziketa garapenean eragitea
HARTZAILEAK	LH 1-2; 6-8 urte LH 3-4; 9-10 urte LH 5-6; 11-12 urte
METODOLOGIA	Eskola kirol kontseiluaren bitartez, ikasturteko programa orokorra diseinatzen da. Programa horrek, larunbatetako ekintzak jasotzen ditu. Asteazken zeharrek saioak, berriz, ikastetxe bakoitzak norbere errealitatearen baitan garatzen ditu. Larunbatetako jardueren antolakuntzan herriko hainbat kirol-klubek hartzen dute parte, beren asistentzia teknikoa eskainiz, baita Gipuzkoako federazio ezberdinak (Herri-kirolak, kirol egokitua) eta enpresa pribatuak ere. Kirol kontseilua astero biltzen da (astearteetan 15:30ean) eta programaren gora beherak bideratzen saiatzen da, baita eskola kirolaren ibilbideaz hausnartzeko ere. Formazio ekintza puntualak antolatzen dira, guraso zein monitoreaentzat.
BALDINTZAK	Gipuzkoako Foru Aldundiaren Agindua jarraitzea. Udal dirulaguntzetako oinarri arautzaileak betetzea.
IRAUPENA	2022-2023 ikasturtea
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Ikastetxeak eta Udala

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Kirol Saila
Telefona	943 15 00 95
Helbide elektronikoa	kirolak@azpeitia.eus
Arduraduna	Nerea Lopetegi

PROGRAMA	GAZTE KIROL PROGRAMA
GAIA	Jarduera fisikoa eta kirol-anitz praktikatzeko programa.
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Eskola kirol programa LH-6.mailan amaitzen da. Ondoren, kirol-federatua edo norbanako kirolaz haratago, lagunartean jarduera fisikoa eta kirol-anitz praktikatu nahi duten gazteei bideratuta. Astean behin (astearteak) 19:00-20:30etara. Herriko hainbat eragile eta enpresarekin lankidetzan.
HARTZAILEAK	12-18 urte bitarteko gazteak
METODOLOGIA	Gazteek erabakitzen dute, hilerok, zein ekintza burutu nahi dituzten.
BALDINTZAK	Kuota: 15€/hilean
IRAUPENA	2022-2023 ikasturtea
ERAKUNDEA edo ENPRESA	BizikJF Koop.

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Kirol Saila
Telefonoa	943 15 00 95
Helbide elektronikoa	kirolak@azpeitia.eus
Arduraduna	Nerea Lopetegi

PROGRAMA	IGERIKETA SUSTAPEN KANPAINA
GAIA	Igerian ikasteko ikastaroak
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Adin horietako haurrek, beren egoera ekonomikoa edo fisikoa alde batera utzita, jarduera/instalaziora sarbidea izatea, oinarritzko jarduera fisikoa eta biziraupenekoak sustatzeko
HARTZAILEAK	Lehen Hezkuntzako 1.-2.-3. eta 4.mailako ikasleak
METODOLOGIA	Ikastetxeetako taldeak igerilekura joaten dira, Kirol Patronatuak aurreikusitako data-ordutegian.
BALDINTZAK	Ikasleak doan jasoko du zerbitzua
IRAUPENA	2022-2023 ikasturtea Orokorrean 20 saio-Ikastetxearen ikasle kopuruaren arabera
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, Ikastetxeak eta Udal kirol patronatuaren babesean

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Kirol Departamendua
Telefonia	943 15 00 95
Helbide elektronikoa	kirolak@azpeitia.eus
Arduraduna	Nerea Lopetegi

PROGRAMA	KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA (KOZ)
GAIA	Jarduera fisikoa eta kirolaren bitartez, ikasleen hezkuntza integrala/osasunean laguntzeko zerbitzua
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Irakasleek orientazio-zerbitzua hezkuntza-baliabide gisa erabiltzea, ikasleen hezkuntza integrala/osasuna bultzatzeko.
HARTZAILEAK	Azpeitiko 0-100 bitarteko herritarrak
METODOLOGIA	Deribazio-protokolo fitxa bete
BALDINTZAK	Doako zerbitzua da
IRAUPENA	2022-2023 ikasturtea
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Udal kirol Saila

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Kirol Saila
Telefonia	943 15 00 95
Helbide elektronikoa	kirolak@azpeitia.eus
Arduraduna	Nerea Lopetegi

PROGRAMA	HEZKIDETZA ETA TRATU ONAK BULTZATEKO ZERBITZUA
GAIA	HEZKIDETZA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Helburu orokorra : pertsona osoen arteko harreman osasuntsu, goxagarri eta parekideak lortzeko prozesu pertsonal zein kolektiboak sustatzea. Helburu zehatzak: 1) Tratu onen praktikak sustatzea herriko hezkuntza komunitateko eragileengan. • Eragileengan gorputzaren ezagutza, onespena eta plazerra sustatzea. • Nork bere buruaren zein besteen zaintzak erdigunean jartzea. • Sexuen, afektuen eta desiren aniztasuna eredu hertsietatik askatzeko adorea, babesa eta aholkularitza eskaintzea. 2) Berdintasunaren alde eta bazterketen aurka dabilen eragileen arteko lankidetzaren sarea indartzea. • Bortizkeriari, eta bereziki emakumeen aurkakoari, aurrea hartzeko oharmena elikatu eta aurre egiteko baliabideak adostea. • Azpeitian bazterketen kontra eta berdintasunaren alde martxan diren iniziatiba feministak anitzak ezagutzera eman hezkuntza komunitateari. • Gazteen eta helduen parte-hartzea sustatzea, batez ere neskena, tratu onen aldeko herriko talde zein ekimenetan.
HARTZAILEAK	Ikastetxeak eta herriko hezkuntza komunitatea. Ikastetxei dagokienez, ikasle, irakasle eta gurasoei zuzenduta dago. Ziklo guztietan ematen da zerbitzua: LH, DBH eta Batxilergoan
METODOLOGIA	Erabiliko diren lan-metodologiak ondoko ezaugarriak izango ditu: - Esku-hartzeak arrakasta izateko, parte hartuko duten pertsonen abiapuntua, beharrak eta jakin-nahiak ezagutu behar dira. Horregatik, partehartzaileen iritziz zein igurikimenak (espektatibak) jasotzeko errondak, edo haien arteko harremanak ze nolakoak diren ikusteko jolasak erabiltzen dira. - Konfiantza sustatzen da, norberak bere iritzia, zalantza eta kezak azaltzera adoretuz. - Ahalegin berezia egiten da talde-presioa indargabetzeko eta taldekide guztiak onartuak izateko. - Arreta trukatzeko, txandaka, guztiontzat da onuragarria, ematen duenarentzat, eta jasotzen duenarentzat. Ondo eta azkar ikasteko aukera ematen du. Hitza hartzeko eta emateko pilota dago. Pilota duenak bakarrik hitz egin dezake; bukatzen duenean ematen dio hurrengoari.

	- Formazio saio guztiak dira teoriko-praktikoak. - Tratu onak maila guztietan izatearen garrantzia azpimarratzen dugu. Hasteko, norbere buruarekikoak - Sexuka banatu. Genero rolek desorekak eragiten dituzte maiz talde barruko dinamiketan. Jarduera gehienak talde mistoan lantzen badira ere, batzuetan neskak/emakumeak alde batetik eta mutilak/gizonak bestetik hausnartu eta eztabaidatzea. Metodologia horrek genero roletatik askeago jokatzeara ahalbidetzen du bi taldeetako kideei. - Sortzaileak. Esku-hartzeen ondorioz hainbat material sortu ahal dira. Hala nola, collageak, argazkiak, ipuinak, bideoak, blogetarako postak, iritzi artikulak... Hauek ikastetxetan, etxean, kalean edota komunikabideetan azaltzea sustatzen da, egokia denean. Ikasmaita bakoitzeko irakasleekin transmisio bilerak egiten dira, interbentzioen aurretik eta ondoren. Funtsezkoa izango da ikastetxeak hezkidetzara ikuspegia garatu eta irakasleen jardunaren bitartez hezkidetzara geletan txertatzea, bai eguneroko lanaren bidez, zein hezkidetzara eta sexualitatea lantzeko saio espezifikoaren bitartez. Helburu hau lortzeko, bitarteko garrantzitsua izango da irakasleei egitasmo honetatik eskaintzen zaien formazioa. Hau horrela izanik, irakasleek dituzten beharren aurrean erantzuna emango da, horretarako formazioak eskainiz. Gurasoei ere saioak eskaintzen zaie, nerabezaroa gurasoentzat ere aldaketa garaia izaten baita.
BALDINTZAK	
IRAUPENA	Ikasturte osoa
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Harremanak

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	PAREKIDETASUNA
Telefonia	943 15 79 28
Helbide elektronikoa	parekidetasuna@azpeitia.eus
Arduraduna	Marta Ruiz

PROGRAMA	ETORKIZUN EGITASMOA
GAIA	EUSKARA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Haur eta gazte etorkinei euskara ikasteko bide eraginkorra eskaintzea, betiere, Azpeitiko gizarte bizitzan errazago txertatzeko helburuarekin. Egunerokotasunean euskaraz komunikatu eta moldatu ahal izateko gutxieneko euskara-maila lortzea.
HARTZAILEAK	LHko eta DBHko ikasleak.
METODOLOGIA	Ikasleak taldeetan banatzen dira adinaren eta euskara-mailaren arabera. Astean bi orduko erritmoan aritzen dira. Materialari dagokionez, euskaltegiak berariaz sortutako materiala erabiltzen da, bereziki, ahozko jardunera bideratua.
BALDINTZAK	Euskaraz komunikatzeko zailtasunak izatea. Ikastetxeetako irakasleek bideratzea, ikasleengan beharra sumatzen badute.
IRAUPENA	Urritik maiatzera
ERAKUNDEA edo ENPRESA	AZPEITIKO EUSKARA PATRONATUA

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	AZPEITIKO EUSKARA PATRONATUA
Telefonia	943811947
Helbide elektronikoa	olatzz@erabili.eus
Arduraduna	Olatz Zabaleta Agirre

PROGRAMA	ETORKIZUNeko UDA
GAIA	EUSKARA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Haur eta gazte etorkinei erakustea euskara eskolan eta euskaltegian ez ezik udan kalean, aisialdian eta jolasean ere erabil daitekeela. Horregatik, ekintza guztiak euskaraz eta taldean egitekoak dira.
HARTZAILEAK	LHko eta DBHko ikasleak
METODOLOGIA	Ikasleak taldeetan banatzen dira adinaren arabera. Ingurunea eta baliabideak kontuan hartuta denetariko jarduerak antolatzen dira, ahal izanez gero gelatik kanpo egitekoak. Ekintzetarako herriko leku eta guneez baliatzen dira.
BALDINTZAK	Euskaraz komunikatzeko zailtasunak izatea. Herriko Udaleku irekietara joateko mugak izatea.
IRAUPENA	Ekaina uztaila
ERAKUNDEA edo ENPRESA	AZPEITIKO EUSKARA PATRONATUA

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	AZPEITIKO EUSKARA PATRONATUA
Telefonia	943811947
Helbide elektronikoa	olatzz@erabili.eus
Arduraduna	Olatz Zabaleta Agirre

PROGRAMA	HARRERA-SAIOAK
GAIA	EUSKARA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Ikasle etorkinek, etorri berritan euskararen ikasprozesua bizkortzeko asmoz, ahozkoaren ulermenaren jabekuntza eta ikaslearen inklusioa lortzea lehenbailehen.
HARTZAILEAK	LHko eta DBHko ikasleak
METODOLOGIA	Ikasleak talde txikian edo banaka hartzen dira. Lehenengo saioak hiru ordukoak izaten dira, tartekoak 2 ordukoak eta azkenetakoak ordubetekoak. Saio bakoitzeko azken orduan jolasak edo jokoak egiten dira; beraz, aurreko orduetan jolasteko beharko diren edukiak lantzen dira. Saioetarako propio sortutako materiala erabiltzen da.
BALDINTZAK	Ikasleak etorri berriak edo hilabete gutxi daramatenak izatea eta euskara-maila A0 izatea. Saioak ikastetxean bertan ematea eta ikaskideek parte hartzea, inklusioaren mesedetan.
IRAUPENA	40 ordu
ERAKUNDEA edo ENPRESA	AZPEITIKO EUSKARA PATRONATUA

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	AZPEITIKO EUSKARA PATRONATUA
Telefonoa	943811947
Helbide elektronikoa	olatzz@erabili.eus
Arduraduna	Olatz Zabaleta Agirre

PROGRAMA	HEDATU
GAIA	Euskararen arnaguneei buruzko proiektua
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Helburuak: Azpeitia bezalako arnaguneek euskararen sustapenean duten garrantziaz jabetzea. Euskal hiztun moduan herritarrek jokatzeko duten lidergo paperaz ohartzea. Euskal hiztun moduan ahalduntzea. Edukiak: Soziolinguistikako edukiak. Euskararen normalizazio prozesuaren gorabeherak: galera prozesua, berreskuratzeko beharra, hizkuntza hautuak kontzienteki egin beharra... Tokiko egoera soziolinguistikoa. Hizkuntza ekologia, aniztasuna eta arnaguneen ikuspegia. Euskarari eusteko estrategiak.
HARTZAILEAK	Irakasleak, ikasleak eta gurasoak.
METODOLOGIA	HEDATU eskaintzaren barruan daude: Ikasleentzat: Unitate didaktikoak irakasleek lantzeko: - HH 5 eta LH1erako unitate didaktiko bat. - LH4 eta LH6 mailarako unitate didaktiko bana. - DBH3 eta DBH4rako seina unitate didaktiko. Tailer presentzialak, UEMAko teknikarien eskutik: LH2. Mailarako Ispiluari Begira tailerra: <i>Ariketa praktikoak, bideoak eta abestiak erabiliko ditugu haurrek euren eguneroko hizkuntza ohiturak aztertzeko eta horien inguruan hausnartzeko. UEMAko teknikariak egingo ditu dinamizatzailerak. Amaieran elkarrekin ateratako emaitzak elkarbanatu ondoren, kantu bat abestuz eta dantzatzuz amaituko dugu saioa. Bi orduko iraupena du.</i> LH6rako Zatoz tailerra: <i>Ikasleen eguneroko hizkuntzak aztertuta eta udalerrir euskaldunek euskararen normalizazioan duten paper garrantzitsua azpimarratuz, gelakide berri batek hizkuntza ohituretan eragin dezaketen aldaketen aurrean eragiteko duten gaitasuna azpimarratzen da ariketa praktikoan</i>

bidez. Ordu beteko saioa.

DBH2rako bixitailerra: *Ikastetxeentzat 55 minutuko iraupena duen saio didaktiko bat da. Erakusketa bat du oinarri eta bertako edukia modu aktiboan barneratzea da helburua. Ikasleei UEMA zer den azalduko zaie; eta, ondoren, erakusketaren nondik norakoen berri emango zaie. Arnasguneak zer diren eta zein garrantzia duten ezagutzeko tarte ere eskainiko da. Behin azalpenak emanda, taldeka jarriko dira eta, lau multzo osatuta, talde bakoitzak fitxa bat bete beharko du. Jarraian, taldeka bildutako informazioa gainontzeko guztiekin partekatuko dute plenarioan. Eta amaitzeko, paper zurian euren gogoeta laburrak idatziko dituzte, paper horiekin hegazkinak egin eta horretarako prestatutako paneleko zulotik sartzen saiatuko dira.*

Batxi tailerra (2. Mailakoei): *Arnasguneen eta hizkuntza ekologiarren kontzeptuak lantzen dira ikasgelan, udalerri euskaldunetako bilakaera nolakoa izan den ulertzen da, norbere herriko datuak aztertzen dira eta bakoitzak hizkuntzaren biziberritzean duen papera ikusten da. Batxilergoko ikasleentzat ordu eta erdiko bi saioko tailerrak eskaintzen dira.*

2. Irakasleentzat:

Soziolinguistikari buruzko formazio saioa:

Irakasleei kontzeptu soziolinguistikoen inguruko formazioa ematen zaie lehenik, bizi diren udalerriaren egoera soziolinguistikokoaren argazkia egiten zaie, eta ikasgeletan ikasleekin landu ahal izateko UEMAk prestatua duen materialaren nondik norakoak azaltzen zaizkie. Ordu eta erdiko saioa.

Ikasgelan euskarari eusteko estrategien formazio saioa:

Ikasgelarako estrategien inguruko formazio saioa. Gero eta ikastetxe gehiagotan kezka atzeman da hainbat aldagai tarteko (ikasle etorri berrien gorakada, sare sozialen eta baliabide teknologikoen erabilera...) euskara indartsu zegoen ikasgeletan erderarako joera nagusitzen ari dela eta. Egoera horietan laguntza eskaini asmoz,

	<i>komenigarria ikusi da irakasleentzako argibide sorta bat prest izatea, horrelako kasuetan zer egin jakiteko. Ordu eta erdiko iraupena du eta UEMako teknikariak ematen du ikastetxean bertan.</i> 3. Gurasoentzat: Gurasoentzako estrategien saioa: <i>Udalerri euskaldunetako eta arnasguneetako ikasleen gurasoentzat proposamenak eta aholkuak bilduko dituen saio praktikoa da. Gurasoen seme-alaben hizkuntza ohiturak ezartzerakoan eragiten duten faktoreak zeintzuk diren, eta egoera horren aurrean gurasoek zer egin dezaketen aztertzen da guztion artean. UEMako teknikariak bideratzen du saioa. Saioa guraso elkarteekin ere egin daiteke, eta funtzionamendurako irizpide eta proposamenak egiten dira. Ordu eta erdiko iraupena du.</i>
BALDINTZAK	Ez dago baldintzarik. Azpeitiko ikastetxe guztiek eskura dituzte zerbitzu guztiak.
IRAUPENA	Ikasturte osoan zehar.
ERAKUNDEA edo ENPRESA	UEMA

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Euskara departamentua eta UEMA
Telefonia	943816699
Helbide elektronikoa	Arnasguneak@uema.eus
Arduraduna	Goizane Arana

PROGRAMA	C1 MAILA
GAIA	Batxilergoko ikasleentzako C1 mailako lanketak
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Helburua: C1 mailako titulua eskuratzeko prestatzea. Edukiak: - Idazmena: 5. Egokitasuna (testu-generoak, hartzaile motak, idazlearen rolak, xedeak eta erabilera-esparruak) 6. Koherentzia (testuaren antolaketa eta gaiaren garapena) 7. Kohesioa (loturak egiteko mekanismoak eta puntuazioa) 8. Aberastasuna (aberastasun sintaktikoa eta lexikoa, adierazkortasuna...) 9. Zuzentasuna (zuzentasun gramatikala, hiztegiaren zuzentasuna...) - Mintzamena: bakarkako gaiak garatzen trebatu eta elkarreraginerako estrategiak landu.
HARTZAILEAK	Batxilergoan dabiltzan eta C1 maila egiaztatu nahi duten ikasleak.
METODOLOGIA	Astean aurrez aurreko bi orduko saio bat jasoko dute ikasleek taldean. Horrez gain, bakarkako lan tutorizatuan arituko dira, hau da, etxean bakarka lanak egin beharko dituzte eta tutore batek egingo die horren jarraipena, zenbaitetan onlineko feedbacken bidez, zenbaitetan aurrez aurre.
BALDINTZAK	C1B2 maila izatea abiapuntu. Hau da, ikasleek entzumen- eta irakurmen-mailan C1 maila izan beharko dute, dagoeneko, diagnosia egiten zaienean, eta B2 maila, gutxienez, idazmenean eta mintzamenen.
IRAUPENA	Urriaren hasieratik maiatzaren lehendabiziko astera arte (gutxi gorabehera, 50 ordu aurrez aurre eta beste horrenbeste bakarkako lanean eta tutoretzetan).
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Azpeitiko Euskara Patronatua

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Azpeitiko Udal Euskaltegia
Telefonoa	943811947
Helbide elektronikoa	euskaltegia@erabili.eus
Arduraduna	Inge Beloki Oiartzabal

PROGRAMA	C1 MAILA UDAN
GAIA	Batxilergoko ikasleentzako C1 mailako lanketak
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Helburua: C1 mailako titulua eskuratzeko prestatzea. Edukiak: - Irakurmena lantzea - Entzumena lantzea - Idazmena: Egokitasuna (testu-generoak, hartzaile motak, idazlearen rolak, xedeak eta erabilera-esparruak) Koherentzia (testuaren antolaketa eta gaiaren garapena) Kohesioa (loturak egiteko mekanismoak eta puntuazioa) Aberastasuna (aberastasun sintaktikoa eta lexikoa, adierazkortasuna...) Zuzentasuna (zuzentasun gramatikala, hiztegiaren zuzentasuna...) - Mintzamena: bakarkako gaiak garatzen trebatu eta elkarreraginerako estrategiak landu.
HARTZAILEAK	Batxilergoan dabiltzan eta C1 maila egiaztatu nahi duten ikasleak.
METODOLOGIA	Aurrez aurre: hilabetean 110 ordu inguru, egunean 5 orduko erritmoan (08:00etatik 13:00era). Autoikaskuntza: 70 ordu, zazpi astetan banatuta, uztailean hasi eta irailaren amaiera bitartean. Ikasleak 10 ordu inguruko bakarkako lana egin beharko du eta astean tutoretza-ordu bat izango du dagokion tutorearekin. Ekintza komunikatibora bideratutako unitate didaktikoen bidezko metodologia erabiltzen da bi ikastereduetan.
BALDINTZAK	16 urte beteta izatea.
IRAUPENA	Aurrez aurrekoa, ekainaren azken astetik uztailearen azkenengo astera arte, gutxi gorabehera. Autoikaskuntzakoa, uztailean zehar hiru aste eta irailean lau aste.
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Azpeitiko Euskara Patronatua

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Azpeitiko Udal Euskaltegia
Telefonoa	943811947
Helbide elektronikoa	euskaltegia@erabili.eus
Arduraduna	Inge Beloki Oiartzabal

PROGRAMA	GURASOAK EUSKALDUNTZEN
GAIA	Ikastetxeetako ikasleen gurasoak
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Helburua: gure hizkuntzak seme-alaben hezkuntzan duen garrantzia kontuan izanda, gurasoek euskalduntze-prozesuari ekitea edo beren euskara-mailan aurrera egitea. Edukiak: - A1 mailatik hasi eta C2 mailara arteko ikastaroak. Mailaz maila, bakoitzari dagozkion eduki komunikatibo, linguistiko, estrategiko eta soziokulturalak. - Gurasoez bakarrik osatutako taldeetan, behar zehatzei erantzuten dieten edukiak.
HARTZAILEAK	Ikastetxeetako ikasleen gurasoak
METODOLOGIA	Euskaltegian bertan diseinatutako unitate didaktikoak, helburu komunikatiboei erantzutera bideratutakoak denak.
BALDINTZAK	16 urte beteta izatea.
IRAUPENA	Urritik ekainera bitartean. Astean ordu-kopuru desberdineko erritmoan.
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Azpeitiko Euskara Patronatua

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Azpeitiko Udal Euskaltegia
Telefonia	943811947
Helbide elektronikoa	euskaltegia@erabili.eus
Arduraduna	Inge Beloki Oiartzabal

PROGRAMA	HAURREN BABESGABETASUNA PREBENITZEKO DETEKZIO ETA ESKU HARTZE GOIZTIARRERAKO PROGRAMA
GAIA	ESKU HARTZE GOIZTIARRA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Adingabeen babesgabetasunerako arrisku faktoreak goiz detektatzea eta detektatu ondoren goiz jarduteko eta esku hartzeko ekintzak aurrera eramatea. Programa Udaleko Prebentzioak, Haurrak eta Familia Zerbitzuan kokatzen da. Bi helbururekin lan egiten da: • Profesionalek jakitea deribatu beharreko kasuak orientatzeko metodologiak. • Metodologia hauetan formatzea profesionalak, esku hartze goiztiarreko programan ere aplikatzeko zuzenean.
HARTZAILEAK	• Azpeitiko udalerriko arlo eta eremu hauetako profesionalak: hezkuntza, eskola, osasuna, aisialdia eta denbora libre eta segurtasuna • Familiak eta adingabeak.
METODOLOGIA	Arriskua iragartzen duten adierazleak identifikatu eta interpretatuko dira, eta identifikatzeko eta interpretatzeko ahalmen hori eragile inplikatu guztietara zabalduko da (programako profesionalak eta eragilearen sareko profesionalak)
BALDINTZAK	Detekzio eta esku hartze goiztiarreko programa Unitate Profesionaletan garatzen da: ikastetxeak, jangelak, haur eskolak, gazteleku eta ludoteka, euskaltegia eta Udaltzaingoa.
IRAUPENA	Ikasturtean zehar
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Orekagune elkarte

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Gizarte Zerbitzuak
Telefona	943 15 71 92
Helbide elektronikoa	gizarte@azpeitia.eus
Arduraduna	Edurne Zubia

PROGRAMA	BIZITZARAKO TREBEZIETAN ETA ADIKZIOAREN PREBENTZIOAN HEZITZEKO ESKOLA PROGRAMA
GAIA	SARE SOZIALAK
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Ikasleak ondorengo gaietan hezi: • Baloreak (emozioak, errespetua, maitasuna, komunikabideak, norberaren irudia...) • Gizarte trebeziak eta bizimodu osasuntsurako ohiturak, drogen eta adikzioen, sare erabilera eta gehiegizko kontsumoa. • Teknologi berrien gehiegizko erabilera eta jokia. • Modu berezian autoestimua, autonomia eta ardurak landu. Osaun-hezkuntza kurrikuluman txertatu haur hezkuntzatik Derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo hezkuntzara arte, irakasleak sentsibilizatuz. Guraso eta irakasleen arteko elkarlana bultzatu. Irakasle, ikasleei, jangelako begiraleei, familiartekoei, gaztelekuko hezitzaileei beharrezko laguntza eta babesak eman osasun-hezkuntza eta prebentzioarekin zerikusia duen guztian.
HARTZAILEAK	LH 3- LH 6 ikasleak, beren familiak, irakasleak eta jangelako begiraleak.
METODOLOGIA	Geletan tutorearekin batera saio ezberdinak egingo dituzte. Saio ondoren, profesionalen artean hitzegindakoa baloratuko da.
BALDINTZAK	
IRAUPENA	Ikasturtean zehar
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Hazkunde elkarteak

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Gizarte Zerbitzuak
Telefona	943 15 71 92
Helbide elektronikoa	gizarte@azpeitia.eus
Arduraduna	Eduarne Zubia

PROGRAMA	BIZITZARAKO TREBEZIETAN ETA ADIKZIOAREN PREBENTZIOAN HEZITZEKO ESKOLA PROGRAMA
GAIA	DROGOMENPEKOTASUNAREN ETA ADIZIOEN PROGRAMA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Ikasleekin honako gaiak landuko dira: tabakoa, alkohola, jokia, elkarbizitza, harremanak Osaun-hezkuntza kurrikulumen txertatu haru hezkuntzatik Derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo hezkuntzara arte, irakasleak sentsibilizatuz. Guraso eta irakasleen arteko elkarlana bultzatu. Irakasle, ikasleei, jangelako begiraleei, familiartekoei, gaztelekuko hezitzaileei beharrezko laguntza eta babesa eman osasun-hezkuntza eta prebentzioarekin zerikusia duen guztian.
HARTZAILEAK	DBH1-2-3-4 • BATXI 1 eta 2 • Lanbide Heziketa
METODOLOGIA	Geletan tutorearekin batera saio ezberdinak egingo dituzte. Saio ondoren, profesionalen artean hitzegindakoa baloratuko da.
BALDINTZAK	
IRAUPENA	Ikasturtean zehar
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Hazkunde elkarte

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Gizarte Zerbitzuak
Telefona	943 15 71 92
Helbide elektronikoa	gizarte@azpeitia.eus
Arduraduna	Eduarne Zubia

PROGRAMA	KULTURA eta IRAKURZALETASUNA SUSPERTZEA
GAIA	LIBURUTEGIA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	-Herrian dagoen liburutegia eta bere baliabideak ezagutaraztea: informazio eta kulturarako sarbidea sustatzen lagunduz. -Irakurzaletasuna suspertu : irudimena eta sormena pizteko, etorkizuneko irakurleak egiteko
HARTZAILEAK	Haur eta Gazteak
METODOLOGIA	Liburutegiko zerbitzuak: informazio edo erreferentzia-zerbitzua, dokumentuen maileguak eta erreserbak, irakurketa eta Kontsulta aretoan, erabiltzaileen formazioa, Interneteko sarbidea, E-liburutegia, Liburutegiko sare sozialak. Irakurleen Txokoa: liburutegian irakurri, komentatu, liburuekin esperimentatu eta jolasean aritzeko dago pentsatuta. LH4, LH5, LH6 eta DBH1ko haurrentzat. Ipuin kontaketak: saio ezberdinak antolatzen dira adinaren arabera eta kontalari profesionalekin. Eskulan tailerra: haurren artean aisialdia sustatzeko. Marrazketa saioak: haurren artean aisialdia sustatzeko Bisitaldiak: Liburutegiaren zerbitzuen eta bildumen funtzionamendua ezagutaraztea, erabiltzaile berriak erakartzea eta haur eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzea da bisita hauen helburua.
BALDINTZAK	Saioak euskaraz izaten dira eta egoeran arabera plazak mugatuak
IRAUPENA	Urtean zehar
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Liburuteka

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Liburutegia
Telefonia	943 15 71 95
Helbide elektronikoa	liburutegikoharrera@azpeitia.eus
Arduraduna	Beatriz

PROGRAMA	Gu ere bertsotan
GAIA	Bertsolaritza eta ahozketasuna
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Bertsolaritzaren bidez arlo hauek lantzen dira: HIZKUNTZA Diskurtsoak jarrera kritikoaz aztertzea, testuaren ezaugarriak identifikatzea, diskurtsoak eraikitzea (batez ere ahoz), euskalkien aniztasunaz jabetzea, sentsibiltate estetikoaren lantzea... KULTURA Kantu inprobisatua kultura errealtate unibertsal gisa ezagutzea, tradizioaren sorkuntzak oroimenaren bidez barnerratu eta taldean kantatzea, bertsoa osagai duten euskal ohituretan parte hartzea... MUSIKA Doinuen ondarea, entzute aktiboa, intonazioa eta igorpena, isiltasuna, abestiak jendaurrean interpretatzea... TREBETASUN PERTSONALAK ETA SOZIALAK Jendaurrekotasuna, dialektika eta lankidetzak, besteen lekuan jartzea, balioak, parekidetasuna, zentzu kritikoa, aniztasuna, sormena...
HARTZAILEAK	Ikasberriko LH5, LH6 eta DBH1. Karmelo Etxegaraiko LH5 eta LH6. Iraurgi LH5 eta LH6.
METODOLOGIA	Bertsozale Elkarteko irakasle espezialista bi astez behin sartzen da gela bakoitzera eta hurrengo astean ikastetxeko irakaslearekin lantzen dute bertsolaritza (irakasle espezialistak utzitako jarraibideekin). Gela barruan metodologia aktiboa, parte hartzailea inklusiboa erabiltzen da, ikasleen gaitasunetara egokitutako helburuak eta dinamikak proposatuz. Erabiltzen den material dena www.bertsoikasgela.eus webgunean dago jasota eta ikastetxe bakoitzak bere sarbidea du atal pribatura material dena eskura eduki dezan.
BALDINTZAK	Ikastetxeek ordaintzen dute proiektua osorik, baina, ondoren Udalak diru laguntza bidez proiektuaren %50a finantzatzen du.
IRAUPENA	Ikasturte osoko iraupena du.
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Gipuzkoako Bertsozale Elkartea (G20461190)

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Kultura
Telefona	943 15 70 68
Helbide elektronikoa	kultura@azpeitia.eus
Arduraduna	Pilar Arrieta

PROGRAMA	AZPEITIKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT LOGOPEDIA ZERBITZUA
GAIA	LOGOPEDIA ZERBITZUA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	HIZKERA NAHASMENDUAK GAINDITZEN LAGUNTZEA.
HARTZAILEAK	LHko IKASLEAK: LH1-2: 6-7 urte LH 3-4: 8-9-10 urte LH 5-6:11-12 urte
METODOLOGIA	Ikasle bakoitzak 15 minutuko bi saio izango ditu astean. Talde txikietan burutuko da (5-6 ikasle). Saioak ikasleen beharrei zuzenduta egongo dira bakoitzaren zailtasunak modu dinamiko batean gainditu ahal izateko. • Ariketa desberdinak ikasle bakoitzarentzat pertsonalizatuak, behararen arabera. • Material desberdina, bakoitzaren helburuak lortu ahal izateko talde-lana sustatuz.
BALDINTZAK	Azpeitiko ikastola bateko LHko ikaslea izatea. Hizkera nahasmenduren bat izatea.
IRAUPENA	Urriaren 1 etik Maiatzaren 31 arte.
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Ane Olarte Epelde

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Kultura
Telefonia	943 15 70 68
Helbide elektronikoa	kultura@azpeitia.eus
Arduraduna	Pilar Arrieta

PROGRAMA	ESKOLAKO AGENDA 2030
GAIA	JASANGARRITASUNA
HELBURUAK ETA EDUKIAK	ESKOLAKO AGENDA 2030, ikastetxeak garapen iraunkorrerantz jotzeko lan-tresna oso baliagarria da. Horretarako, beharrezkoa da hezkuntza-komunitateko eragile guztiak prozesu horretan inplikatzeko eta udal administrazioarekin etengabeko elkarlana burutzea. Prozesu osoan zehar ezinbestekoa izango da Eskolako Agenda 2030ak dituen oinarritzko hiru osagaiak kontuan izatea. Hala nola: • Ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren kudeaketa iraunkorra • Curriculumaren berrikuntza • Komunitatearen parte-hartzea Ingurumen Hezkuntza arloan adostutako helburuez gain, Agenda 2030aren helburu orokorrak ere kontutan hartuko dira eta partaidetzaren ardatzari bereziki lehentasuna emango zaio. - Tokiko Agenda 21ean parte hartu eta gizarte- eta lurralde-ingurunean integratzea. - Hezkuntza-komunitateko herriko partaide guztien arteko koordinazio-mekanismoak sendotzea - Ikastetxeko eta inguruneko gizarteari eta ingurumenari dagozkien gaiak identifikatu, aztertu eta alternatibak proposatzea, foroetan ezagutaraztea eta ingurunearen erabilera iraunkorra lortzeko prozesuak abiaraztea. - Ikasleak bere ikastetxeko eta beren ingurumenaren kalitatean eragina duten kontuetan parte hartu, lagundu, erabakiak hartu eta inplikatzeko ohitzea.
HARTZAILEAK	Ikastetxeetako ikasle guztiak
METODOLOGIA	Ikasturte bukaeran hurrengo urtean jorratu beharreko gaia aukeratzen da Azkoitia eta Azpeitiako ikastetxe guztietako ordezkari, bi Udaletako ordezkari eta Legazpiko Ingurugelako ordezkariaren artean. Aurreko puntuan aipatzen diren parte hartzaileek urtean zehar 6- 8 koordinazio bilera izaten dituzte, programaren xehetasunak adosteko. • Iraila-Abendua bitartean: Programan erabiliko diren materialak eta ekintza osagarriak diseinatzen dira, aukeratutako gaia herri mailan lantzeko (lan fitxak, irteerak, e.a.). • Urtarrila-Apirila bitartean aukeratutako gaian ikastetxeetan jorratzen da. Erabilitako gaiari esker, ikasleak gaiaren inguruko diagnostika burutzen dute eta Alkateari aurkeztuko dizkioten proposamenak lantzen dituzte. Ikastetxe bakoitzak bere proposamenak egiten ditu eta • apirila-maiatza inguruan Eskolarteko Foroa antolatzen dute, proposamen guztietatik Alkateari luzatuko dizkiotenak zeintzuk izango diren aukeratzeko. Azkenik, beste saio batean, Ikastetxeko ikasle ordezkariak Udal ordezkariarekin elkartzen dira, "Audientzia" edo Udal Foroa izenarekin ezagutzen den ekimenean. Bertan, ikasleek hartutako konpromiso pertsonalak azaldu eta herria

	hobetzeko proposamenak udal agintariei luzatzen dizkiete. Alkateak eta Ingurumen zinegotziak, eskaerei erantzuna ematen diete. Aurretik aipatutako ekintzez gain, EA 2030eko proiektuan txartatuta dauden hainbat jarduera osagarri: baratzezaintza ikastaroa, baserrietara bisitak, ibai garbiketa, material birziklatuekin egindako eskulanean erakusketa, e.a.
BALDINTZAK	
IRAUPENA	Ikasturte osoa
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Azpeitiko Udala – Ekoetxea Azpeitia http://www.ekoetxea.eus/ekoetxea-azpeitia

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	EKOETXEA AZPEITIA/ INGURUMEN SAILA
Telefonia	943812448 / 943 157070
Helbide elektronikoa	Info.azpeitia@ekoetxea.eus ingurumena@.eus
Arduraduna	Ekoetxeako Hezitzaileak Edurne Agirre - Ana Arruti - Itziar Unanue Udaleko Ingurumen Teknikaria: Izaskun Ceciaga

PROGRAMA	LUDOTEKA ZERBITZUAREN IREKIERA
GAIA	Zerbitzuaren ezagutza
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Herriko zerbitzuak ezagutzea: Iturritxiki eta Txiki Txoko ludotekak
HARTZAILEAK	Herriko hiru ikastetxeetako HH5 – LH6 ko ikasleak
METODOLOGIA	* Ikasturte hasieran * HH5eko haurrak, irakasleen laguntzarekin zerbitzuak ezagutzeko txangoak egiten dituzte ikastolako ordutegi barruan. * LH1 – LH6ko ikasleen geletatik ludotekako hezitzaileak igarotzen dira zerbitzua azaltzera dinamina ezberdinen bitartez. * Guztia aurrera eramateko saileko koordinatzailea harremanetan jartzen da ikastetxeko zuzendari eta zikloko arduradunekin txanda eta orduak zehazteko.
BALDINTZAK	Koordinazioa ezinbestekoa
IRAUPENA	Ikasturtero aurrera eramango den ekintza
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Jauzika Heziketa Elkartea

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Azpeitiko Udala - Gazteria Salla
Telefonia	943157161
Helbide elektronikoa	gazteria@azpeitia.eus
Arduraduna	Aloña Larrañaga Urdalleta

PROGRAMA	GAZTELEKU ZERBITZUAREN IREKIERA
GAIA	Zerbitzuaren ezagutza
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Herriko zerbitzua ezagutzea: Gaztelekua
HARTZAILEAK	Herriko hiru ikastetxeetako DBH1 – BATX2 ko ikasleak
METODOLOGIA	* Ikasturte hasieran * DBH1 - BATX2 ikasleen geletatik gaztelekuko hezitzaileak igarotzen dira zerbitzua azaltzera dinamina ezberdinen bitartez. * Guztia aurrera eramateko saileko koordinatzailea harremanetan jartzen da ikastetxeko zuzendari eta zikloko arduradunekin txanda eta orduak zehazteko.
BALDINTZAK	Koordinazioa ezinbestekoa
IRAUPENA	Ikasturtero aurrera eramango den ekintza
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Jauzika Heziketa Elkartea

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Azpeitiko Udala - Gazteria Saila
Telefonoa	943157161
Helbide elektronikoa	gazteria@azpeitia.eus
Arduraduna	Aloña Larrañaga Urdalleta

PROGRAMA	HAURREN KONTSEILUA
GAIA	Haurren parte hartze aktiboa
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Helburu nagusiak: *Azpeitiko haurren parte hartze aktiboa sustatzeko, parte hartze kanal iraunkorra diseinatzea. Umetasun parametroaren garrantzia ulertzea eta errespetatzea. Helburu zehatzak: • Haurren autonomia garatzea. • Haurren erabakitze gaitasuna bultzatzea. • Haur-helduen arteko botere harremana birpentsatzea. • Parte hartuko duten norbanakoen zein taldeen artean elkarlana bultzatzea. • Haurrek jendartean izan dezaketen eragiteko gaitasuna ulertu eta garatzen laguntzea.
HARTZAILEAK	Herriko hiru ikastetxeetako LH5-LH6ko ikasleak
METODOLOGIA	* Ikasturte osoan martxan dagoen egitasmoa da. * Ikastetxe bakoitzean egitasmoaren ordezkaria izendatzen da, koordinatzailearekin jarraipen zuzena egin ahal izateko. * Jarraipena aurrez aurrez zein emailaz egingo da. * Ludotekako hezitzaileak bidelagun izanik, ordezkariak hilean behin lan saioak egingo dituzte ikastetxeko ordutegian baina herriko gunen ezberdinetan. * Gai ezberdinak landuko dira saioetan eta behararen arabera udaleko, zein herriko ordezkari ezberdinekin elkartuko dira. * Saioaren ondoren, ordezkariak beraien tutoreen bitartez beraien gelakideei guztiaren berri emango die.
BALDINTZAK	Koordinazioa ezinbestekoa
IRAUPENA	2021/2022 ikasturtea baina jarraitzeko asmoarekin
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Jauzika Heziketa Elkarte 943157161 gazteria@azpeitia.eus Aloña Larrañaga Urdalleta

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Hezkuntza Zerbitzua
Telefona	943 25 50 06
Helbide elektronikoa	ekorta@azpeitia.eus
Arduraduna	Edurne Korta Uria

PROGRAMA	NERABEEN PARTE HARTZEA
GAIA	Nerabeen parte hartze aktiboa
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Helburu orokorrak - Herriko nerabeen beharrak, iritziak eta proposamenak jasotzea. - Nerabe-hezitzaile erreferentzia eraketa bat egitea. - Herriko nerabeen egoeraren inguruan diagnosi bat egitea. - Nerabea eta nerabea inguratzen duten sistemen (ikastetxea, herriko eragileak, instituzioak) arteko kohesioa hobetzea. - Herriko nerabe guztiengana iristea. - Nerabeak herrian parte hartzeko gaitasunak bereganatzea. Helburu zehatzak - Autonomia indartzea. - Herriko baliabideak ezagutzea. - Herriko nerabeen zerbitzua (Gaztelekua) ezagutzea. - Nerabeen arteko elkar ezagutza bultzatzea. - Zaurgarritasun egoeran dauden nerabeen indentifikazioa eta prebentzioa. - Anistasuna ardatz hartzea eta eredu uniformizatzailerak baztertzea. - Unean uneko gaiak lantzea (sexualitatea, drogak...) - Lokaletan dauden nerabeekin hartu emana indartzea. - Familiekin, ikastetxeekin, herriko eragileekin eta udalarekin harremanak indartzea eta koordinazioa burutzea.
HARTZAILEAK	Herriko hiru ikastetxeetako DBH1 – DBH3ko ikasleak, aurtengo ikasturtean, baina 2022/2023 ikasturtean DBH2 – DBH4ko ikasleak beraiekin lanean jarraitzeko
METODOLOGIA	* Ikasturte osoan martxan egongo den egitasmoa da. Lau fasetan banatzen da: elkar-ezagutza / beharren identifikazioa/ ekintzen exekuzioa / balorazioa * 2021/2022 ko ikasturtean lehen fasea egingo da * Ikastetxe bakoitzean egitasmoaren ordezkaria izendatzen da, koordinatzailearekin jarraipen zuzena egin ahal izateko. * Jarraipena aurrez aurrez zein emailaz egingo da. * Gaztelekuko hezitzaileak izango dira egitasmoko bidelagunak eta geletan saioak dinamizatuko dituztenak. * Lehen fasea amaitu ondoren, koordinazio bilera ezberdinak egingo dira: ikastetxeko ordezkariarekin, udaleko ordezkariarekin, nerabeen guraso zein arduradunekin, herriko eragileekin.... * 2022/2023 ikasturtea zehaztuko azken bileran
BALDINTZAK	Koordinazioa ezinbestekoa
IRAUPENA	2021/2022 ikasturtea baina jarraitzeko asmoarekin
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Jauzika Heziketa Elkartea 943157161 gazteria@azpeitia.eus Aloña Larrañaga Urdalleta

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Hezkuntza Zerbitzua
Telefonoa	943 25 50 06
Helbide elektronikoa	ekorta@azpeitia.eus
Arduraduna	Edurne Korta Uria

PROGRAMA	AZPEITIA EZAGUTZEN
GAIA	Herri kurrikuluma lantzen
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Azpeitiaren historia modu erakargarrian bildu eta ezagutzera eman. Hiru lan kuaderno Lehen Hezkuntza hiru ziklotan banatuta dago, eta lan kuaderno bakoitza ziklo batean erabiliko dute. 1. Aurreneko zikloko ikasleentzat; 6-7 urte dituztenentzat, zuzenduta dago. Irakurtzen orduantxe hasten dira, eta horregatik lehendabizikoa testu gutxi eta argazki askokoa izango da. 2. Unitatea, Aro Berritik Aro Garaikidera (XVI-XVIII) arteko denbora tarteak bilduko du, eta 9-10 urte artekoentzat izango da. 3. unitatea, XIX, XX eta XXI. mendeko Azpeitia izango dute ardatz azken horiek. 11-12 urteko gaztetxoei zabalduko diete.
HARTZAILEAK	LH ikasleei LH 1-2; 6-7 urte LH 3-4; 9-10 urte LH 5-6; 1-12 urte
METODOLOGIA	Hezitzaileentzat gida eta lan koadernoak 1,- Nondik gatz? Nola sortu ginen? 2,- Handitzen handitzen. Jaso dugun altxorra 3,- Izan zirelako gara. Nora goaz?
BALDINTZAK	https://azpeitia.eus/hezkuntza-saila/azpeitiko-herri-curriculum-lantzen-azpeitia-ezagutzen-helbidean-irakurgai-daude
IRAUPENA	
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Lan koadernoak Olatz Arangurenak koordinatu eta egin du, Hik Hasiren aholkularitzarekin, eta liburuxkako ilustrazioak Iban Eizagirre herritarrek egin ditu

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Hezkuntza zerbitzua
Telefona	943 25 50 06
Helbide elektronikoa	ekorta@azpeitia.eus
Arduraduna	Edurne Korta

PROGRAMA	Txinaurriak
GAIA	Kultur sormena ikastetxeetan
HELBURUAK ETA EDUKIAK	• Azpeitiko ikasleei kultur sormenera gerturatzeko aukera luzatzea. • Ikasleengan modu desberdinean eragiteko bitartekoak eskaintzea. • Ikastetxeetan eskaintzen zaiena osatzea eta aberastea. • Balio eta balore hezitzaileak dituen kultura eraldatzailea sustatzea. • Ikasle kulturzaleak, parte hartzaileak, kritikoak eta sortzaileak hezteak.
HARTZAILEAK	HH, LH, DBH eta BATXI ko zikloetako maila bat
METODOLOGIA	• Herriko ikasle guztien eskaintzan zaien programa da, hiru ikastetxeetan banatuta. • Ikaslea hezkutza arautuan dagoen urteetan zehar lau eremuetatik pasa eta bakoitzean gutxienez esperientzia bat biziko du. • Ziklo bakoitzean eremu (hitza, irudia, soinua eta gorputza) bateko esperientzia jasoko dute. • Programa hau Dinamoan burutuko da.
BALDINTZAK	• Lau esperientzia eskainiko dira ikasturtean zehar. • Datorren ikasturtean eskainiko diren saioak urte bat lehenago landuz joango gara eta horretarako irakaslegoaren laguntza behar da.
IRAUPENA	Ordu bat eta ordu t´erdiko saioak
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Kulturaz Kooperatiba

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Hezkuntza zerbitzua
Telefonia	943 25 50 06
Helbide elektronikoa	ekorta@azpeitia.eus
Arduraduna	Edurne Korta

PROGRAMA	Hedatze programa
GAIA	Kultur sormen tailerrak
HELBURUAK ETA EDUKIAK	• Hiru ikastetxeetako ikasleei hedatze programaren barruan sormen tailerrak eskeintzea. • Ikaslearen kultur zaletasuna elikatu, bultzatu eta sustatu. • Balio eta balore hezitzaileak dituen kultura eraldatzailea sustatzea. • Ikasle kulturzaleak, parte hartzaileak, kritikoak eta sortzaileak hezteak.
HARTZAILEAK	DBH ikasleak
METODOLOGIA	• 6-8 saioko tailerra. Hiruhilabeteko iraupenarekin eta arratsaldean • Azpeitiko hiruko ikastetxeetako ikasleek taldea osatuko da.
BALDINTZAK	• Aurrez izena eman beharko dute ikasleek. • 8-20 ikasleko taldeak.
IRAUPENA	Hiru hilabeteko iraupena. 6-8 saiotako tailerretan banatuta
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Kulturaz Kooperatiba

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Hezkuntza zerbitzua
Telefonoa	943 25 50 06
Helbide elektronikoa	ekorta@azpeitia.eus
Arduraduna	Edurne Korta

PROGRAMA	GURASO ESKOLAK
GAIA	Guraso eskolak
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Ikasturtean zehar ikastetxeetan ikasleekin landu diren gaien inguruko hitzaldiak: .- Zure seme-alaben mundu birtuala ezagutu nahi? .- Eskuhartze goiztiarra .- Nola ez galdu mundu birtualean? .- Nola hezi gure seme-alabak tratatu onetan?
HARTZAILEAK	LH eta DBH-BATXI gurasoentzat
METODOLOGIA	Guraso eskolen baitan, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleen gurasoei gaztetxoaren garapen egokian eragin eta sor daitezkeen oztopo edo arazoei aurre egiteko tresna edo baliabideak eskaintzea da helburua, beren seme-alaben heziketan bidelagun izanik. Gurasoen arteko komunikazio eta hausnarketarako foruak izatea ere badute helburu. Gurasoen kezka eta ardura gehienak antzekoak eta konpartituak izan ohi dira. Kezka eta zalantza horiek kudeatzeko tresnak eskaini eta gaur egungo gaztetxoaren errealitatea gertuagotik ezagutzeko helburuarekin. Ikastetxeetan ikasleek lantzen dituzten proiektuen baitako saioak antolatzen dira. 3 saio Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoentzat eta DBH eta Batxilergoko ikasleen gurasoentzako beste bat.
BALDINTZAK	Guraso eta herritar guztientzat irekia
IRAUPENA	4 hitzaldi ezberdin ikastetxe bakoitzean
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Hazkunde www.hazkunde.com Hiruki Larroxa www.hirukilarroxa.eus Orekagune Zentroa www.orekagune.com

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Hezkuntza zerbitzua
Telefonoa	943 25 50 06
Helbide elektronikoa	ekorta@azpeitia.eus
Arduraduna	Edurne Korta

IRAURGI BERRITZENek eskaintzen ditu:

PROGRAMA	IKASIZ
GAIA	Ikastetxeetako kudeaketa eta antolaketa ereduen inguruko saioak
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Ikasiz lan lerroak IB Hezkuntza markoan lehenetsitako beharrei erantzutea du helburu, eta horretarako, sentsibilizaziora eta kapazitaziora bideratutako espazioak eskaintzen dira.
HARTZAILEAK	Ikastetxeetako kudeaketa eta antolaketa ereduen inguruko saioak ospatu dira eskualdeko ikastetxeetako (Urola BHI, Ikasberri, Iraurgi, Azkoitia BHI, Floreaga) zuzendaritza taldeekin. Saio hauen bitartez, norbere errealitate propioan oinarrituz eta baliagarri izango zaizkien ekintzetan fokua jarritz, barne-hausnarketa egiteko aukera izan dute ikastetxeek.
METODOLOGIA	Dinamikak honako lan saiotan bideratu dira: • lan saio kolektiboan, zentroen kudeaketaren inguruko oinarritzko kontzeptuetaz aritu ziren. • Honen ostean, ikastetxe bakoitzak banakako aholkularitza jaso zuen ikastetxean bertan. • Lan saio kolektiboan, aldiz, esperientzien elkartrukea egin da.
BALDINTZAK	Hezkuntza-zentroen Kudeaketa eta Antolaketa Ereduek lanketa gai ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin
IRAUPENA	Ikasturtez ikasturte
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Iraurgi Lantzen www.iraugiberritzen.eus

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Iraurgi Lantzen
Telefonia	943 026069
Helbide elektronikoa	info@iraugiberritzen.eus
Arduraduna	Jon Zubizarreta / Iosu Sorazu

PROGRAMA	GEROLAN
GAIA	Eragileen lankidetza sarea
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Iraurgi Berritzenek dinamizatzen duen eragileen lankidetza sarean du jatorria eta eskualdeko ikastetxeetako irakasle orientatzaileek osatzen duten lan taldeak garatzen du proiektua. Ikasleen orientazio akademikoa indartzea du helburu proiektuak eta ekintzak, ikastetxeko orientatzaile ezberdinekin elkarlanean adostu dira. Besteak beste, 3 ekintza azpimarra daitezke: Eskualdeko errealitate sozioekonomikoaren berri emateko, orientazio mapa sortu da. Orientazio beharren arabera bisitak antolatu nahi dira eskualdeko eragileengana. Iraurgi Berritzen enplegu eta orientazio zentroetako teknikarien bisitak antolatu dira ikasgeletan.
HARTZAILEAK	DBH4n dauden eta Lanbide Heziketako ikasketak egiteko asmoa duten ikasleei bideratu zaizkie, eta, bestetik, Batxilergoa amaitzen ari diren eta Unibertsitateko graduatan nahiz Lanbide Heziketako ikasketetan interesa dutenei.
METODOLOGIA	Proiektu honek Iraurgi Berritzenek dinamizatzen duen eragileen lankidetza sarean du jatorria eta eskualdeko bost ikastetxeetako orientatzaileekin elkarlanean garatzen da. Ekimenaren helburu nagusia ikastetxeetako orientazio plana indartzea da, eta, horretarako, hainbat lan ildo lehenesten dira.
BALDINTZAK	
IRAUPENA	Ikasturtez ikasturte
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Iraurgi Lantzen www.iraugiberritzen.eus

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Iraurgi Lantzen
Telefona	943 026069
Helbide elektronikoa	info@iraugiberritzen.eus
Arduraduna	Jon Zubizarreta / Iosu Sorazu

PROGRAMA	PROIEKTUGINTZA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA IRAKASGAIA ETAN
GAIA	Zientzia eta Teknologia ikasgeletan
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Proiektuaren garapenak, 3 helburu nagusi ditu: 1. Eskualdeko gaztetxoek artean zientzia eta teknologia gaitasunak lantzea du helburu. Honetarako, gaztetxoek zientzia eta teknologia arloko proiektuak lantzen dituzte ikasturtean zehar. 2. Ikasleek metodo zientifikoan experimentatu eta oinarritzko ezagutzak barneratzea lortu nahi da. 3. Proiektuaren bitartez, irakasleei proiektuen gidaritzan prestakuntza eskaini eta hauen aplikazioan laguntzea lortu nahi da.
HARTZAILEAK	Azkoiti eta Azpeitiko DBH mailako ikasle taldeak
METODOLOGIA	Prozesuan zehar, DBH mailako ikasleek hartzen dute parte eta hauek talde txikitan bilduta irakasleek proposatutako erronka ezberdinak lantzen dituzte. Era berean, proiektuen garapenean, irakasleek, Elhuyar Fundazioa eta honek duen unibertsitateetako ikertzaile boluntarioen laguntza izaten dute. Proiektua, 2 fase nagusitan antolatzen da. Batetik, Elhuyarren eskutik, proiektuen gidaritzarako oinarritzko kontzeptuak barneratu eta ondoren landuko den proiektuaren planifikazioa lantzen dira. Bigarren fasean berriz, lehen fasean irakasle ezberdinek landutako planifikazioak aplikatzen dira ikasleekin. Ikasturtearen amaieran, ikasturtean zehar landutako proiektuak aurkeztu eta elkarbanatzeko "Urola Erdiko zientzia eta teknologia azoka" ospatzen da.
BALDINTZAK	
IRAUPENA	Ikasturtea
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Iraurgi Lantzen www.iraurgiberritzen.eus

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Iraurgi Lantzen
Telefona	943 026069
Helbide elektronikoa	info@iraurgiberritzen.eus
Arduraduna	Jon Zubizarreta / Iosu Sorazu

PROGRAMA	ELKARREKIN ERAIKITZEN
GAIA	Ekintzailetasuna
HELBURUAK ETA EDUKIAK	Iraurgi Berritzenek dinamizatzen duen eragileen lankidetzaren sarea du jatorria eta eragile ezberdinek hartzen dute honen garapenean parte. Proiektuak, prozesuan zehar, ikaslea bere ikasketa prozesuko protagonista egin eta hiru helburu nagusi betetzea lortu nahi du. 1. Ikasleen artean ekintzailetzari lotutako balioak eta gaitasunak sustatzea du helburu; besteak beste, iniziatiba edo komunikazio gaitasuna. 2. Ikasleek eskualdeko egoera sozioekonomikoaren berri izan eta etorkizunean lan munduan sartu aurretik dagozkien erabakiak ahalik eta informazio gehienarekin hartzea. 3. Irakasleei metodologia berritzaileekin esperimentatzeko aukera eskaini eta prozesuan zehar irakaskuntza metodologia berritzaileak aplikatu.
HARTZAILEAK	Azkoiti eta Azpeitiko DBH 3 edo 4 mailako ikasleek hartzen dute parte talde txikitan bilduta.
METODOLOGIA	Iraurgi Berritzenek proposatutako erronka errealak hausnartu eta lantzen dituzte. Hauek eskualdeko eragile ezberdinen egunerokoan oinarritzen dira. Proiektua, 2 fase nagusitan antolatzen da. Batetik, proiektuaren gidaritzaz arduratzen diren irakasleek elkarlanean ikasturteko mugarrak definitu eta adosten dituzte. Bigarren fasean berriz, lehen fasean irakasle ezberdinek elkarlanean diseinatutako prozesua aplikatzen da ikasleekin. Ikasturte amaieran, proiektuari amaiera emateko ikasleek prozesuan zehar jasotako ezagutza eta bizipenak aurkezten dituzten ekitaldia ospatzen da.
BALDINTZAK	
IRAUPENA	Ikasturtea
ERAKUNDEA edo ENPRESA	Iraurgi Lantzen www.iraugiberritzen.eus

DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA	Iraurgi Lantzen
Telefona	943 026069
Helbide elektronikoa	info@iraugiberritzen.eus
Arduraduna	Jon Zubizarreta / Iosu Sorazu

Azpeitia

Denontzat